

Zigor Ceballos, ziklo-kroseko txirrindularia:

“Hezurrik apurtuko ote dudan galdetzen diot nire buruari egunero”

Urrian hasi da aurtengo ziklo-kros denboraldia eta, iaz bezala, Zigor Ceballos ermuarra dugu lehian. Aurten Valladolideko D’Castro taldeak bere babesa eskaini dio eta gainera bizikleten kontrolean astebururo du ondoan neskalauna. Denboraldi amaieran, urtarrilean, Espainiako txapelketara gogotsu heldu, profesionalekin lehiatu eta gauzak ondo egitea espero du.

- Noiz hasi zinen ziklo-krosean?

97an hasi nintzen eta 2001ean alde batera laga nuen. Errepideko txirrindularitzan zentratu nahi nuen eta biak ondo prestatzea ezinezkoa zen! Iaz ekin nion ziklo-krosari berriro ere.

- Eta zer dela eta bueltatu zara?

Ziklo-krosean ibili izan garrenoi kirol honek betiko erakartzen jarraitzen gaituela esango nuke, beste batzuen lasterketak ikustera bagoaz, batez ere. Iaz probatu nuen, gustura ibili nintzen eta aurrrera!

- Aurreko urteetan Aitor Hernándezen laguntzaile gisa ibili zara, ezta?

Bai eta berak animatu nau gehien lehiatzen haste-ko.

- Kategoria berean aritzen zarete orain?

Ez, bera ‘elite’ mailan dago, profesionaletan nolabait esateko; ni ‘seniorretan’ ibiltzen naiz, 24 eta 29 urte bitartekoekin. Azken laster-

ketetan baina, kategoria biak elkarrekin lehiatu izan dugu eta tentsio handia egon da. Seniorrok gure lana daukagu ziklo-krosaz gain eta lasterketa hasi aurretik, beti pentsatzen dut hezurrik apurtuko ote dudan. Hurrengo egunean lana daukagunok ezin dugu lesiorik izan.

- Zein da zure helburua kirol honetan?

Gozatzea. Badakit ez dudala hemendik bizimodua aterako; hala ere, irabazten badut, hobeto!

- Eta nola doa denboraldia?

Ondo. Lehen lasterketan jausi nintzen baina bigarre-nean bigarren egin nuen, eta hirugarren eta laugarre-nean irabazi egin dut, Bur-gosen.

- Zer da kirol honetan gehien estimatzen duzuna?

Giroa alde batetik eta bestetik, 40 minutu edo ordubeteko lasterketak direla. Errepidea astunagoa da eta entrenamendu luzeagoak eskatzen ditu. Ziklo-krosean bi



Zigor Ceballos, erdian, Villarcayoko podiumean

ordu edo bi ordu t’erdi egunero entrenatuta nahikoa da.

- Ordu horiek beste zeregin batzuei lapurtzen dizkiozu?

Bai, askotan beste kontu batzuen gainetik ipintzen dut kirola. Bikotekidearekin denbora gehiago pasatu ahal izango nuke baina behintzat minimo batera heltzeko entrenatu behar dut. Kirolari askori minimo hori falta zaie eta arriskutsua izan daiteke.

- Kirol gogorra delako?

Bai, lehertzeko kirola da oso. Topera hasten zara eta

40 minutu beranduago topera bukatzen duzu. Gehiegizko pisua izatea, esaterako, ez da batere ona.

- Eta kirol garestia da?

Bai, aurtan Valladolideko D’Castro taldeak arropa eta lizentzia ordaintzen dizkit baina 2 edo 3 bizikleta behar dituzu, arropa mordoa, materiala, erroberak, bi-daiak, prestaketa... Errepidean aritzeko asmoa ere badut eta horretarako bizikletaren koadroa utziko didate D’Castrokoek. Oso ondo portatu dira, oso pozik nago.

Dorleta Vidal

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean